

*Ekonomiaz* aldizkariaren ale honetan saiatuko gara aztertzen zein den edo zein izan beharko litzatekeen pentsio osagarrien zeregina, batez ere enplegu- edo lan-pentsioena, hirugarren adineko pertsonen bizitza-maila arrazoizkoa eta duina bermatzeko.

Gizarte-aurreikuspen osagarria (GAO) aztertzeo aukerek eta garrantziak bi arrazoi dituzte oinarri: lehenik eta behin, sistema publikoen gabeziak estaltzeko gaur egun dugun konponbide bakarra da, eta, bigarrenik, alor horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eta jarduteko aukera ugari ditu.

Lehenengo puntuari dagokionez, herritarrentzako pentsio egokiak, finantzarioki iraunkorrak eta seguruak bermatzeko xedearekin orain hamabost urte baino gehiago European hasitako koordinazioak bi jarduketa-ildo nagusi izan ditu emaitza gisa; alde batetik, adineko pertsonen lan-jardueran duten partaidetza areagotu da, benetako erretiro-adina handituta; eta bestetik, pentsio osagarri kapitalizatuak orokortu dira, intentsitate handiago edo txikiagoarekin. Krisia latza izan da, batez ere gure eta beste herrialde «periferiko» batzuetako finantza publikoetan, non erreforma- eta laguntza-egutegiak oso zehatzak izan baitira; horien eraginez, lehenengo alderdiari eskaini zaio arreta handiagoa.

Are gehiago, esan dezakegu adineko pertsonen enplegua sustatu baino, zuzenean pentsio-aukerak murrizten ari direla, finantza publikoen egoera hobetzeko neurri gisa, eta, horretaz aparte, erreformak mailakatuta eta etorkizunari begira egingen direnez, ez dutela berehalako beherakadarik eragiten kontsumoan.

Nolanahi ere, egoera ikuspegi profesionaletik azaltzen eta gutxienez kuantifikatzen ari gara: gaur egungo aukera eta xedapen legalak direla bide, nahiko modu zehatzean kalkulatu dezakegu pentsio publikoaren estalduraren murrizketa soldatari dagokionez. Hala, gure ustez, ez du zentzurik eztabaidatzen eta ukatzen jarraitzea trantsizio demografikoak pentsioetan dituen efektuak. Gizarte Segurantzaren alorreko azken arau-aldaketaren arabera, hazkunde ekonomikoak eta enpleguak zuzeneko eragina izango dute pentsioen eguneraketan, eta, halaber, badirudi argi uzten duela Gizarte Segurantzak jada ez duela barne hartuko bizi-itxaropenaren hazkundera; horrek pentsio txikiagoak ekarriko ditu berekin.

Hortaz, egoera argitu delakoan gaude, eta hala, GAOren inguruko erabakiak hartu behar direla uste dugu. Hiru dira auzi nagusiak esparru horretan:

Lehenengoa egiturazkoa da, eta GAOren izaerarekin lotuta dago. Britainia Handiko Bidezko Merkataritzako Bulegoak<sup>4</sup> (*Office of Fair Trading*) duela gutxi adierazi duen bezala, pentsio osagarrietan eskariak oso negoziazio-ahalmen eskasa du, tamaina, ezagutza, dedikazio eta abar oso txikien ondorioz; gainera, produktu oso konplexua dira, eta bere bertuteak eta akatsak ezarri zirenetik urte ugari igaro direnean besterik ezin dira hauteman.

Bigarrenik, berehala gauzatu beharreko finantza-lehentasunak izan arren, GAOren alorreko jardunbide egokiek pisu handiagoa izan beharko lukete hurrengo hila-beteotako agenda politikoan, sozialean, enpresakoan eta sindikalean. Hala, Europako Batzordeak Pentsioen Liburu Zuria argitaratu zuenetik bi urte igaro diren honetan, orain hasi dira proposatutako neurriak itxura hartzen, edo, behintzat, zehaztapen-fasean sartu dira. Era horretan, urtearen amaieran enplegu-pentsioei eta agian banakako pentsioei buruzko jardunbide egokien inguruko kodeak eduki ahalko ditugu; horretaz aparte, eztabaida piztu da GAO sustatzeko neurri eraginkorrenen buruz, ELGAren eta Europar Batasunaren lankidetzalana oinarri.

Gainera, estatu mailan, GAOren egoerari eta berau sustatzeko aukerei buruzko eztabaida irekita dago. Koordinatzailea Aseguruen Zuzendaritza Orokorra da, eta Toledoko Itunaren aurrean txosten bat aurkeztea zuen helburu. Hori 2013ko udan egin beharra zegoen, baina alde batera utzi da, prozesua geldiarazteko arrazoiak zudelako argudiatuta. Baliteke hala izatea; baliteke ere, besterik gabe, aurrera egiteko ahalmen politikorik ez edukitzea. Edozein kasutan, bi arrazoiek babestu egiten dute GAOren inguruko gai garrantzitsuenek, helburuak zein tresnak zehazteko beharrari dagokionez, agenda politikoan presentzia handiagoa izatea defendatzen duen iritzia.

Azkenik, gauzak «nola» egiten diren aztertzea da hirugarren alderdia. Pentsioen gaiarekin lotuta, ale honetako zenbait artikuluk agerian jartzen dute arazo nagusia ez dela ez jakitea «zer» egin behar den, baizik eta «nola». Pentsioen bizi-zikloa dela eta, albiste txarretatik hasi beharra dago, hau da, ekarpenak egin, aurreztu eta gutxiago kontsumitzetik, eta horiek, gainera, ez datoz bat ziklo politikoarekin. Bi gertakariok erreforma-prozesuak zaildu edo galarazten dituzte.

Egiaz, GAO orokorrean ezarri ahal izateko, negoziazio kolektibo eraginkorra eta osoa beharrezkoa da, edota esku-hartze publiko sendoa. Herritarrari ez zaizkio bakar-bakarrik murrizketen inguruko diagnostikoak eta informazio-gardentasuna eskaini behar; konponbide zehatzak ere eman behar zaizkio, baldintza onak eduki behar dituztenak prestazioen eraginkortasun, kostu eta egokitasunari dagokienez.

Negoiazio kolektiboaren esparruan, etorkizuneko aukerak ez dira onak, eta aspaldi-aspaldiko esperientzia gutxi batzuk izan ezik, historiala ere nahiko negatiboa da. Horregatik, esku-hartze publikoko neurriak dira, antza, aktibatu beharrekoak,

<sup>4</sup> *Defined contribution workplace pension market study* (2013/2014), Bidezko Merkataritzako Bulegoa. <http://www.of.t.gov.uk/OFTwork/markets-work/pensions/>

erreferentziazko hainbat herrialdetan, Britainia Handian edo Alemanian kasu, emaitza onak erdiesten ari direnak. Ildo horretatik, hala ere, tokian tokiko esperientzia gutxi dauzkagu, eta, beharbada horregatik, nahiko kezagarria da GAOren eztabaida gelditzea Madrilen.

Alabaina, testu honen hasieran adierazi bezala, EAEk baliabide gehiago ditu esparru horretan. Izan ere, estatuak arlo publikoan erabakitako murrizketak saihestu ezin dituen arren, eskumenak, baliabideak eta nahiko arrakastatsuak izan diren esperientzia ez-marjinalak ere baditu prestazio osagarrien alorrean.

Hasteko eta behin, arau-erregimen propioa du, eta eskumen eskusiboa gizarte-aurreikuspenean, nahiz eta estatuak aldizka hura oztopatu. Era berean, 2006an egindako Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Planaren diagnostikoa du, gertakarien eta demografiaren bilakaerek zuzentzat jo dutena.

Ildo horretan, eta guztiaren isla gisa, aipatutako konponbide eraginkor eta orokorra eskaintzera bideratutako «lehentasunezko» erakundeen aldeko apustua egiten duen lege bat du, egun indarrean dagoena. Azkenik, beste herrialde batzuek martxan jarri duten esku-hartze publiko sendoa bultzatzeko eskumen fiskalak ditu. Azken finean, EAEk ez du zertan Estatuaren zain egon, gizarte-aurreikuspenean aurrera egiteko. Europako zuzentarauak eta esperientziak argiak eta nahikoak dira, go-goeta estrategikoa eta esperientzia oso positiboak ditugu, eta, amaitzeko, arau- eta zerga-baliabideak ere badauzkagu.

*Ekonomiaz* aldizkariaren monografiko honek eztabaida horretarako ekarpenak egin nahi ditu, bai eta teknologia soziala garatzeko prozesurako ere, pentsio publikoen murrizketari aurre egiteko konponbide orokor eta eraginkorra eraikitzea ahalbidetuko lukeena. Modu egituratuagoan azaltzearen, eztabaida horrek hainbat artikulutan lantzen diren gaiak erantzun behar die, 2006ko GAOri buruzko euskal planarekin oso koherenteak direnak. Gaiak, oinarrikoak ez ezik, nahiko sinpleak dira, baina beren ondorioak direla eta, zaila da erantzun argiak ematea. Hona hemen:

- Ea beharrezkoa den langileen gehiengo oso kualifikatu batek GAO nahiko handia izatea, erretiroa hartzean beren bizitza-mailari eusteko.
- Ea aitortzen den egungo sistemak, sortu dituen finantza-interes guztiak gorabehera (urteko komisioak ehunka milioi eurokoak dira), ezin diola aurre egin erronka horri eta haren berrebaluazio orokorra egin behar dela.
- Ea enplegu-sistemak bakarrik eskaini ditzakeen Gizarte Segurantzaren erreformek planteatzen duten erronkari aurre egiteko beharrezko gizarte-estaldura orokortua eta finantza-eraginkortasuna.
- Ea enplegu GAO ETEetan eta zerbitzuen sektorean orokortuta egon behar den, kontuan hartuta Bizkaian eta Araban duen garapen txikia, non oraindik dena egiteko baitago.

- Ea horretarako, bat egin behar ote dugun ezarpen-estrategia argi eta sendoekin, helburu zehatzak dituztenak eta Australia, Zeelanda Berria, Britainia Handia edo Alemaniaren antzekoak eta ELGak sustatuak direnak. Egungo sistema boluntarioak pizgarri nahiko txiki edo «laguntzakoak» ditu, eta hogeita bost urtetik gora igaro eta zerga-gastuak milaka milioi eurokoak izan direnean, oso urruti dago lortu nahi eta lortu egin behar diren ezarpen eta funtzionamendu eraginkorreko helburuetatik.

Guztiak kontzeptualki konplexua iruditu arren, berriro diogu ez dela hainbestetarako. Adibide bat Alemania izan daiteke: Besterik gabe, ondorioztatu dute herritarrek gutxienez beren soldataren % 4 aurreztu behar dutela (urtean 2.000 euro baino apur bat handiagoa), eta xede horretara zehazki bideratutako pizgarriak ezarri dituzte, bai eta nominaren bidez hori modu erraz eta eraginkorrean egiteko baliabideak ere.

Azken urteetan, jokabidearen ekonomiak aurrerapen handiak egin ditu, eta esperientzien kasuan ere halaxe izan da; beraz, nahikoa zehaztasunez dakigu zer-nolako jokabidea izango duten herritarrek sistema, aukera (normalean lehenetsiak) eta pizgarri jakinen aurrean. Azken batean, badakigu zerk funtzionatzen duen eta zerk ez duen funtzionatzen GAOn. Horregatik, erregulatzaile, eta, parte hartuz gero (halaxe izatea nahiko genuke), eragile sozialen esku dago gaia.

Euskadiko GAoren planak oinarrizko galdera horietako asko erantzun zituen, Espainian batere argi ez daudenak oraindik. Baina hark eragindako jarduketa eta emaitzei, edo horien gabeziari erreparatuz gero, esan dezakegu EAEn beharbada ez zitzaizela eman pentsioei lortutako garrantzia ez lehentasuna. Tresnak kontuan hartzen baditugu, negoziazio kolektibotik abiatu zen plana. Hala ere, horrek huts egin du, eta ez bakarrik krisi eta lan-egoera negatibo orokorragatik, eragile sozialen sinesmen-faltagatik ere, plana onartu zenean dagoeneko agerian geratu zena.

Horregatik guztiagatik, plana oraindik estrategia nazional indartsu eta argi bihurtu behar dugu, euskal araudian jasotako eta jada aipatu ditugun «lehentasunezko» BGAEak euskarri dituen, baina zehaztaper praktikoa faltan duena, batik bat bultzada politiko, sozial eta fiskala.

Galdera horiek erantzuten laguntzeko, eta batik bat teknikoki eraginkorrak eta sozialki bideragarri eta onargarriak diren konponbideak daudela frogatzeko helburuari eutsiz, ale honetako artikuluek hiru esparru mailakatu dituzte hizpide.

Lehenengoan ikuspegi orokorra ematen dugu, bai estaldura eta beharrei bai ildo estrategiko nagusi posibleei dagokienez, eta aukeran ditugun politika ezberdinak azaltzen.

Bigarren blokean egungo egoera dugu aztergai eta esperientzia eta ikuspuntu zehatzagoak aztertzen ditugu, GAoren ezarpena Euskadin eta bere esparru legala abiapuntu gisa hartuta. Halaber, Estatuan, Europan eta munduan planteatzen ari diren ikuspegiei ere leku egiten dio blokeak.

Azkenik, hirugarren atala daukagu teknikoena, eta bertan, GAO behar dugun tresna eraginkorra izatea ahalbidetzen duten diseinu-alderdi nagusiak jorratzen dira. Halaber, GAOren finantza- eta inbertsio-jardueraren eta sortu berri diren eztabaidei erantzunez jarduerok garatu behar diren gizarte-ingurunearen arteko lotura errepara-tzen da. Eztabaidok krisiak eragindakoak dira neurri handi batean, eta erakunde-inbertitzaileen erantzukizunak –pentsioak ordaintzea ez beste batzuk– dituzte hizpide.

**Diego Valerok**, Gizarte Segurantzaren etorkizuneko aukerei eta GAOren zeregina-ri buruzko artikuluan, Espainiako pentsio-sistemari heltzen dio, sistema publikoa zein sistema pribatu osagarria analizatuz. Erreforma publikoei buruzko prozesuak modu globalean ikertzen ditu, eta iraunkortasuna ardatz duen ikuspegian oinarritzen direla behatzen, sistemaren egokitasuna eta nahikotasuna kaltetu ditzakeena. Valeroren planteamenduaren arabera, azken bi printzipio horiei aurre egiteko, pentsio-sistema osagarriak garatu daitezke, betiere kontuan hartuta gizarte-babesean dagokien zeregina bete behar dutela.

Sistema publikoari dagokionez, Espainian funtsezko erreferentzia dena bere garrantzi handia dela eta, 2011ko erreformak aztertzen ditu artikulua, zeinen bidez erretiro-adina 67 urteraino luzatu baitzen, bai eta iraunkortasun- faktoreari buruzko azken erreformaren aurrekariak ere. Bigarren erreforma horrek ezarritako pentsioen berrikuspena eta eguneraketa bi elementuren mende dago, eta hala, pentsioa belaunaldiaren bizi-itxaropenarekin eta sistemaren sarreren eta gastuen oreka-rekin erlazionatuko da<sup>5</sup>.

Erreforma horretan, Gizarte Segurantzaren iraunkortasun finantzarioa bermatuta geratu da, baina mekanismo simple baten bidez, alegia, herritarrek dauzkaten baliabideen araberrako pentsio-ordainketaren bidez. Horiek horrela, hauxe da ondorio nagusia, betiere etorkizuneko gertakarien eragina baztertu gabe: pentsio-tasak soldataren arabera behera egingo du.

Beharakada orekatzeko, GAO garatzeko aukera onenak lantzen ditu artikulua, beharrezkotasunetik hasi eta aurreikuspen boluntarioarako pizgarriak handitzeraino. Esparru horretan, lege-mandatu bidez Aseguruen Zuzendaritza Orokorrean aurrera eramaten ari den estatu-mailako eztabaida aipatzen du. Aurretiko dokumentuek GAO-n defizit handia dagoela eta enpresaren bidez berau sustatu behar dela aitortzen dute.

Zentzu horretan, bere ustez ezinezkoa da Espainian sistema-osagarriak beharrezko bihurtzea enpresetan, salbu eta konstituzioa aldatzen ez bada, eta, gainera, argi geratu da, bateko, neurri fiskalak ez direla nahiko eta, besteko, negoziazio kolektiboaren ondoriozko ezarpena txikia dela. Hala, geratzen den aukera bakarra, gu-rean dagoeneko frogatuta dagoena, pseudobeharrezkotasuna edo *soft-compulsion* da,

<sup>5</sup> Pentsioen sistema publikoaren iraunkortasun-faktoreari buruzko Adituen Batzordearen txostena. Ikus hemen: [www.lamoncloa.gob.es/NR/.../informesostenibilidadpensiones.pdf](http://www.lamoncloa.gob.es/NR/.../informesostenibilidadpensiones.pdf)

gastu txikiak eta aurrezteko zailtasun handiagoa dutenei zuzendutako pizgarriak barne hartzen dituena.

**Jon Aramburuk** eta **Toni Canalsek** GAOk estatu mailan izango duen garapenari buruzko beren ideiak aurkezten dizkigute. Hala, beren ustez, errenta handiak dituen taldeak ez du GAO zabaltzeko beharrik, dagoeneko berau baitauka edo aurrezteko beste modu batzuk baititu. Aldiz, 12.000 eta 60.000 euro bitarteko errentak dituzten biztanleen taldean, egileek azpimarratzen dute ez dela % 30era iristen GAOri ekarpenak egiten dizkiotenen proportzioa, eta oinarri ezargarriaren % 1 baino pixka bat gehiago besterik ez dela ekarpenetara bideratzen. Hori dela eta, talde horretan biltzen dituzte beren kezkek eta xedeak.

Horregatik ondorioztatzen dute eztabaidaezina dela Espainian GAOn gaur egungo izaera eta garapenak ez direla, ezta etorkizunean ere, pentsio publikoentzako edo erretiro-adina atzeratzea lortzeko babes garrantzitsurik ezta esanguratsurik ere ez. Errenta handien nitxo partziala dira eta izango dira, hedapenari nahiz zenbatekoiei dagokienez.

Gainera, errentagarritasun-arazoak ez ezik, eraginkortasunekoak ere baditu, eta horiek egiturazkoak dira egungo GAOn zati handiengan, hau da, banakakoan. Hortaz, bi idazleon ustez, nahi bada GAOk edukitzea Gizarte Segurantzaren sistema babesteko eginkizun garrantzitsua, ikuspegia eta helburuak erabat aldatu behar dira, erdi-mailako langileengana bideratuz, eta pizgarriak berrikusiz, erdi- eta behe-mailako errentak xede. Nazioarteko esperientzia kontuan hartzen badugu, estaldura osagarri esanguratsuak, oro har, enplegu-sistemen hedapen oso zabaletik baino ezin dira etorri.

Proposamenen egokitasunari eta krisiari dagokienez, baieztatzen dute enpleguko GAO orokortzeko estrategia guztiak 2018/2020 urtean baino ez direla hasiko ekarpen gehigarri esanguratsuak sortzen. Beraz, ez da, inola ere, berehala egin beharreko ahalegin ekonomikoa, eta hori dela eta, ezin da erabili egungo krisia eztabaida saihesteko.

Bestalde, ez dute uste arazo nagusia gai teknikoak direnik, mundu mailan hainbat eta hainbat esperientzia arrakastatsu baitaude, bai eta zerga-, arau-, administrazio-, ekonomia- eta gizarte-tresna ugari ere, botere publiko eta eragile sozialen esku.

**Clara Izurietak** eta **Iñaki Zabalak** GAOn ezarpen- eta nahikotasun-maila aztertutako Euskadin. Zehazki, balorazioa egiteko, 2006ko Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Planak ezarritako helburuak hartu dituzte erreferentzia haren erakunde-arduradunek. Planak zera bilatzen zuen: lanean ari ziren biztanleen % 70ek sortzea, beren lan-errenta edo errenta profesional-enpresakoetatik abiatuta, % 20ko pentsio osagarria, gutxienez.

Helburu horiek erabat koherenteak dira Gizarte Segurantzaren egungo aukerekin. Hala, iraunkortasun-faktorearen inguruan Adituen Batzordeak egindako txostena indarrean jarri da Gizarte Segurantzari; eta horrek ebaluatu duenez, bizi-itxaropena handitzearen ondoriozko prestazioen beheranzko zuzenketa % 20 izango da

hurrengo lau hamarkadetan. Alabaina, bere garaian kritikatuak izan ziren aurreikuspenok, edo ez zitzairen jaramonik egin, eta horren eraginez, ez dira lehentasunezko zat hartu negoziazio kolektiboaren agendetan.

Balorazio hori egiteko, hiru informazio-iturri mota hartu dituzte abiapuntu: sektoreak berak ematen dituen datuak, foru-ogasunek (batez ere Bizkaikoak) emandako informazioa, eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzako estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioaren (EKD) aplikazio berritik eskuratutako datuak. Zehazki, banakako sistemari ekarpen esanguratsuak egiten dizkion talde garrantzitsu baten inguruko balorazio zehatzagoak eta beharrezkoak egin daitezke EKDren informazioari esker, batez ere arrisku-profilei eta gastu eta komisioei buruzkoei esker.

Amaitzeko, bi egileek ondorioztatu dute, langileen % 70eko helburutik, gutxi gorabehera, % 30ek bakarrik erdietsi ahalko lukete, enplegu-sistema ona dutelako edo bi sistemak konbinatzen dituztelako. Beste % 30ek ez luke lortuko alde handiz, baina gai izango litzateke gizarte-aurreikuspen osagarriari ekarpen sendoa egiteko. Gainerako % 40k, aldiz, ez luke izango GAO esanguratsurik. Hau da, oso urrun gaudela langileen % 70ek GAO esanguratsua edukitzeko xedetik, nahiz eta arrazoi batzuk sistemari berari egotzi dakizkiokeen, eta ez ekarpen- edo pizgarri-faltari.

Beste alde batetik, EKDren bidez adinen arabera jokabidea ere aztertu daiteke. Horrek agerian uzten du herritarrak nahiko berandu hasten direla banakako sistemari ekarpenak egiten, eta gainera, oso txikiak direla horiek hasieran; amaitzeko, arrisku-profil teorikoak adinarekin koherenteak ez direla egiaztatzen da aipatu dokumentazioa analizatzean.

**Luis Carlos Izquierdok**, bere artikuluan, hauexek deskribatzen ditu: nola eratu zen Euskadiko gizarte-aurreikuspenaren sistema, nola eguneratu den eta zeintzuk diren erronka nagusiak, gure asmoa gizarte-babeserako sistema publikoaren osagarri izango den tresna eraikitzea bada, onuradunen artean konfiantza eta lasaitasuna sortuko dituen.

Bilakaera historikoaren azalpenaren abiapuntua eskumen hori EAeko gobernuari transferitu zitzaion unea eta BGAEei buruzko 1981eko Legea dira. Lege hori, eragile sozialekiko lankidetzaren lehenengo urteetan eta tratamendu fiskalarekin batera, oso garrantzitsua izan da euskal biztanleen heren bati babesa ematen dion sistema osagarriaren oinarriak sendotzea lortzeko. Ia 30 urtez egon da indarrean, duela gutxi indargabetu duten arte.

Bitxikeri gisa, ia-ia baieztatu dezakegu Euskadin baino ez daudela ezarrita talde handiak eta ETEak modu nabarmenean estaltzen dituzten sistema sektorialak. Nolanahi ere, erdi-mailako herritarren egoera aztertuz gero, behatu dezakegu aurreikuspen osagarria ez dagoela behar adina orokortuta gure gizarteko erdi- eta behe-mailetan, aurrezteko ahalmen txikia dutenak. Balorazio hori eta Geroa BGAE salbu, GAO ETEetara iristen ez zela ikusita, Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Plana egitea erabaki zen.

Artikuluak aztertzen ditu plana aplikatu den zazpi urteetan onartu diren neurriak, hala nola BGAEak ezartzen laguntzeko dekretuak, horien funtzionamendua eta jarduerak eguneratzen dituen 2007ko dekretua, gobernu-batzordeetako kideen prestakuntzari buruzko agindua, inbertsio batzuei eta epe jakinerako kontabilizazioari buruzko 2009ko agindua, 2010eko kontabilitate-dekretua, eta, azkenik, BGAEi buruzko 2012ko Lege berria.

Legean azpimarratzekoa da «lehentasunezko» BGAEen sorrera. Erakunde horiek zenbait gizarte-ezaugarri sendo dituzte, adibidez, diskriminaziorik ezaren printzipioa, izaera finalistagoa, ekarpen partekatua eta errenta moduan kobratzea. Erakundeon xedea behar adinakoa eta egokia izango zen pentsio osagarria orokortzea erraztea zen, baldintza eta betebeharrak optimoak aplikatuta.

Gogoeta amaitzeko, erreforma eta hobekuntzen proposamen integral bat aurkezten du egileak. Duela gutxiko neurri fiskalekin lotuta, adierazten du azken erreformak aurrezki fiskala bilatzen duela funtsean, GAOri egindako ekarpenen ondoriozko oinarri ezargarriaren gehieneko mugak murriztearen bidez, baina oraindik ez dela gauzatu gizarte-aurreikuspena suspertu, bultzatu eta orokortuko duen erreformarik. Aurreikuspen-planak berak aldaketa horietako batzuk aipatzen zituen dagoeneko. Erdi- eta behe-mailako errentak dituzten biztanle gehien-gehien pentsioak enplegu-sistemen bitartez osatzeko, beharrezkoa da erdi-mailako errentetarako laguntza fiskalak areagotzea, foru-ogasunentzako kostua arrazionalizatuz eta berriro banatuz<sup>6</sup>. Besteak beste, artikuluak zera proposatzen du: oinarri ezargarriaren murrizketaren arrazoizko zati bat enplegu-sistemarako erreserbatzea, eta horien barruan, lehentasunezko sistemarako.

ELGAko **Juan Yermok** jorratzen ditu, bere artikuluan, GAO sustatzeko politika publikoen aukerak. Hasierako balorazio orokorrean, ezinbesteko garrantzia ematen dio pentsio pribatu kapitalizatuen zeregin osagarriari. Izan ere, banaketako sistema publikoaren ordezte-tasak asko jaistea espero da, erretiro-fasean dauden pertsonen bizi-kalitatean kalte handia eraginez ondorio gisa. Hori ELGAko herrialde gehienetan gertatzen da, eta Espainian, estaldura teorikoak handiak izanagatik ere (urtean 30.000 eurora artekoak), murrizketa ere nabarmena izango da.

ELGAko herrialdeetako sistema osagarri kapitalizatuekin konparazioa egitean, agerian geratzen da atxikitze-tasa handienak erregistratzen direla nahitaezko edo ia nahitaezko pentsio-plan pribatuak dituzten herrialdeetan, atxikitze automatikokoak barne, (pentsio-plan pribatu bat duten pertsonen kopurua bezala definitzen dena). Hala, pentsio pribatuak boluntarioak diren herrialdeetan, lan egin dezaketen biztanleen % 13 eta % 50 artean kokatzen da estaldura-tasa; aldiz, nahitaezko sistemen kasuan, % 70 ingurukoa edo hortik gorakoa da.

<sup>6</sup> Hori guztia bat dator erabat ostean ELGAK proposatu eta une honetan EBrekin garatzen ari denarekin.



Artikuluak, funtsean, Italia, Zeelanda Berria eta Alemaniako esperientziak aztertzen ditu; amaieran, ostera, gastu eta komisioei eta finantza-profil egokiari erreferentzia egiten die.

Ingelesez egindako artikuluan, **Matti Leppäläk** bere gogoeten berri ematen digu pentsio-sistema osagarrietarako atxikipena eta estaldura zabaltzeko modu eta esperientziei buruz.

Egilearen hasierako diagnostikoari helduz, bat dator Euskadiko Aurreikuspen Planarekin eta ELGArekin, bai eta iraunkortasun-faktorearen inguruko batzordearekin ere: 2060 urterako, pentsio publikoak % 20 txikiagoak izatea espero da Europan, soldatei dagokienez. Ondorioz, egileak dio erretiroa hartzean, herritarrek ezingo diotela eutsi beren bizitza-maila, eta, aurrezki gehigarririk ez badute, pobrezia-mailaren azpitik kokatu daitezkeela ohartarazten du.

Bere iritziz, enplegu- edo lan-pentsioak funtsezko elementua dira pentsio osagarrien estaldura ona bermatzeko, horien hedapena banakakoena baino askoz hobe izan daitekeelako, eta, kudeaketa ona egiten bada, prestazio hobeak eskaini ditzakeelako, kostu-eraginkortasuna eta eskala-ekonomiak tartean.

Herrialdeek hainbat jardunbide edota horien konbinazioak erabili dituzte enplegu-pentsioen sistemarako atxikimendua areagotzeko, besteak beste, beharrezkotasuna, autoatxikitzea, zerga-pizgarriak, negoziazio kolektiboa eta enplegatzailearentzako pizgarriak. Leppäläk negoziazio kolektiboan oinarritutako kuasibeharrezko banakako atxikitze-sistemen eta atxikitze eta aukera lehenetsiko sistemen alde egiten du (Britania Handiko NEST kasu). Era berean, uste du «zentzuzko» betekizunak, bermerako betekizunak edo bestelakoak astunegiak eta nahasiegiak bihurtzen badira (zalantzarik gabe, II. Kaudimena zuzentarauaz ari da), pentsio osagarri mota horientzako pizgarriak kendu daitezkeela, eta horietarako atxikitze-tasa murriztu.

Egileak dio gauza ugari egin daitezkeela enplegu-pentsioen sistemen estaldura zabaltzeko, baina egia da ere zoritxarrez, aldaketa kezkarriak eta atzerakadak egin dituztela azken urteotan zenbait herrialdek enplegu-pentsioen inguruko politikan, batez ere Europako erdialdeko eta ekialdekoek, krisiak eragindako aurrekontu-finkapena arrazoi.

Azken artikulua **Jon Aldecoak** egindakoa da, eta pentsio-sistema kapitalizatuetako inbertsioei lotutako erantzukizun fiduziario eta soziala lantzen du, bai eta horiek benetako ekonomiarekin duten lotura ere.

Lehenik eta behin, pentsio-sistemak eta araua kudeatzeaz arduratzen direnen leialtasun- eta profesionaltasun-betebeharrak analizatzen ditu. Zentzu horretan, doktrina- eta lege-multzo zabalak ondorioztatuta duenez, erakundeek beren kideen eta gizartearen gizarte, ingurumen eta gobernu korporatiboaren alorreko lehenetsueni ere aurre egin diezaiekete (gizarte-erantzukizuneko inbertsioen –GEI– politika), eta batez ere eragin finantzarioa dutenean, nahiz eta epe luzerakoa izan. Gainera, beha-

rrezkoa da normalean esparru juridiko, sozial eta fiskal berezia duten pentsio-sistema horien onarpen sozialari heltzea, eta hartara, erakunde-inbertitzaileak diren aldetik, estatus berezi horrek eskatzen duen moduan jardun behar dute. Era berean, krisiak eta zuzendaritzako kide askoren abusuek argi utzi dute akziodunak ezin direla elementu pasiboak izan, beraiek jabe diren enpresetako kudeatzaileen gainean inolako kontrolik gauzatzen ez dutenak.

GEI politika hori abian jartzeko orduan, hiru esparru handi definitu behar ditugu: politika horren ingurumen, gizarte eta gobernu onaren alorreko helburuak (IGG), bere estrategiak eta bere ezarpena. Estrategiei dagokienez, saihestu nahi diren inbertsioak eta sustatu nahi diren horiek bereizi behar dira. Lehenengo taldean, «bazterketa» negatiboko iragazki bat aplikatu behar da; bigarrenean, berriz, inbertsioen «integrazio» positiboa. Gainera, erakundeak edo funtsak inbertsioa egiten duen enpresetan «inplikatzeko» aukera du, normalean beren jokabidea edo jarduera aldatzeko baina inbertsioa kendu gabe, edo behintzat, inbertsioa egin aurretik. Artikuluak, era berean, IGG alorrei lotutako inbertsio tematikoak lantzen ditu, konplexuak izan arren, integrazioa gauzatzeko aukeretako bat osatzen dutenak.

Azpiegituretako inbertsioa da inbertsio-modu erreal arruntena gaur egun, pentsio-sistemen premia finantzarioen artean. Halaber, aktibo mota horren ezaugarri bereziak aurkezten dira artikuluan, eta, ikuspegi horren arabera, azpi-mota bat izan daiteke erkatzen badugu errenta aldakor, finko edo arrisku-kapitalarekin. Alor horretan, jada martxan diren erakunde-ekimenen berri ematen da, ELGAK, G-30ak eta orain, Europako Batzordeak berak sortutakoak direnak.

Azkenik, finantza-krisian inbertsioekin lotuta egin diren hainbat jarduketa aztertzen ditu, eta ETEen kapital zirkulatzaileria finantzatzeko EAEko eskariak sartzen ditu alor horren barruan. Zehazki, egileak azpimarratzen du ia ez dagoela aurrekariarik esparru horretan, are gutxiago enpresa-ordezkaritzaren eskaerekin konparatzen badugu. Badaude, ordea, hazkundera sustatzeko gaikako inbertsioak, garapen bidean dauden herrialdeetan, oro har. Arriskuarekiko proportzionala den errendimendua lortzea izan ohi dute helburu, eta hori, normalean, handia izaten da.

Izan ere, ohikoagoa da esparru ekonomiko naturalean inbertsioak egitea behar bezalako arauak izatea funts subiranoetan eta bestelakoetan, dibertsifikazio-arrazoiengatik. Edonola ere, logikoa da pentsio-sistemek inguruan inbertitzea, beren ospearengatik eta hobeto ezagutzen dutelako, baldin eta finantza-merkatu egokiak eta arrisku-kapitaleko jarduera profesionalak badaude.

**Ignacio Zubiriren** artikuluan banaketa- eta kapitalizazio-sistemen abantailak eta desabantailak aztertzen eta erkatzen dira, pentsio-sistemaren funtzionamendua antolatze aldera. Arrazoi historikoak eta behin-behineko trantsizio-kostuak direla medio, banaketako sistema publikoa da gailentzeko aukera gehiago dituen, baina sistema osagarrien garrantzi gero eta handiagoak kostuen, estalduraren, eskaintzen duten bermearren, arrisku kolektibo eta banakakoen, ekoizpenaren gaineko efektuen

eta, azken finean, iraunkortasunaren azterketa konparatua justifikatzen du. Ondorio nagusi gisa adierazi dezakegu sistemaren kapitalizazio partzialak ez duela abantaila handirik aurkezten banaketa-sistemeekin konparatuta. Aurrera eramango balitz, oso eginkizun osagarria bete beharko luke, enplegu-sistemetan oinarrituta, eta/edo kudeaketa-arau sinpleak dituzten banakako kontuetan, kudeatzaileen zeregina mugatze aldera.

Artikulu-multzotik bereizita, bi dokumentu osagarri eskaintzen ditugu. Lehenengoan ELGaren 2012ko *Pensions Outlook* dokumentuaren seigarren kapituluaren zati handi bat aurkezten dugu, ekarpen zehaztuko pentsio-planen diseinua hobetzeko ibilbide-orriari buruzkoa. Dokumentua **Pablo Antolínek**, egileetako batek, iruzkindu eta eguneratu du, eta Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Euskal Behatokiak itzuli eta egiaztatu.

Bertan nabarmentzen da ekarpen zehaztuko pentsio-plan pribatuak bihurtzen ari direla, herrialde gehienetan, pentsio-sistema orokorren gero eta zati garrantzitsuagoa, kasu batzuetan, pentsio-sistemen elementu nagusia izatera iritsi arte. Horregatik, plan horietatik datozen pentsio-prestazioek nabarmen baldintzatzen dute erretiroko sarrera globalen egokitasuna.

Ibilbide-orrian, hainbat gomendio ematen dira pentsio publikoarekin koherenteak diren diseinuei buruz, kostu txikiko sistemetan kotizazio-ibilbide luzeak ahalbidetuko dituztenak, baita bizi-zikloko inbertsio automatikoak edota egokiak diren beste batzuk izateko aukerekin, aldizkako pentsio gisako prestazioekin, eta, amaitzeko, komunikazio onarekin koherenteak direnei buruz ere.

Azkenik, *Ekonomiaz aldizkariko erredakzioak* gida simple bat osatu du. Bertan argi eta garbi definitzen dira gizarte-aurreikuspen osagarriaren esparrua eta ezaugarriak, Gizarte Segurantzaren sistema publikoaren aurrean. Gida horretan, bere zeregina betetzeko gizarte-aurreikuspen osagarriak dituen tresna bakoitzaren edukia eta funtzioa laburbildu ditugu. Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikuspen honek erregulazio berezia duenez, horri erreparatu diogu nagusiki, tratamendu fiskala ahaztu gabe.